



Joseba (eserita) eta Hur Astarbe beren sagardotegian, horman 'Sagarra-Manzana' bildumako koadro batzuk ikusten direla. :: usoz

SAGARRA INSPIRAZIO

Astarbe sagardotegian festa egin zuten atzo 'Sagarra-Manzana' ilustrazio bilduma inauguratzeko

Sagardotegi denek nahi diote bere etxeari kutsu berezia eman. Astigarra-gako **Astarbe sagardotegia** bere bide propio eta berezia urratzen ari da. Eta artea da bide horren ezaugarrietako bat. Atzo, adibidez, **'Sagarra-Manzana'** izeneko margolan sorta estreinatu zuen. Hamaika ilustrazio koloretu dira, **Paul Lataburu** donostiarrak eginak, denak loturaren bat dutenak sagardo egiteko erabiltzen den frutarekin. Kondaira zahar batzuei buruzko margolanak dira, collage tankerakoak.

Nolako kondairak? Batetik, guztioi segituan burura dator kungun huraxe: **Bibliako** Genesian agertzen den fruta debekatuaren kondaira. Bestetik, greziar mitologiako Parisen epaiketa, gero **Rubensek** margotuko zuena. Alegia: Eris jainkosa -desadostasunaren jainkosa- haserre dago, Peleoren ezkontzara gonbidatu ez dutelako, baina hara azaltzen da eta urre koloreko sagar bat uzten du idazki batekin batera: 'Emakume ederrenarentzat'. Bertan zeuden hiru jainkosek nahi dute

hura eraman: Hera, Atena eta Afrodita. Zeus guztiahaldunak, orduan, Troiako Paris hautatzen du epaile.

Lehen ere eginak zituen Astarbek ahalegin artistiko batzuk. **Iaz, Anna Roca Bárbara** kataluniarrik ikatz-marrakia egin zuen ohol baten gainean, bi gai lotuz: baleazaleak eta emakumeak. Orain hantxe ikus daiteke, sagardotegiko pareta batean. Jakinaenez, iaz sagardotegi honen parte hartu zuen Ternua aldean egindako espedizio batean. Eta aspaldiko lotura dauka familia honek Ternuarekin, ikus daitekeenez XVI. mendeko agirri batean. Astarbe sagardotegia Mendiola baserrian dago, eta baserri horretako seme zen Tomas de Tallada de Mendiolak testamentua egin zuen 1596an, balea harra-patzera goialde haietara zihoalako. Garaiko marinelen ohitura zen; ez baitzekiten atzera bizirik bueltatuko ziren.

Esanda bezala, Anna Roca Bárbararen margolan horretan bi emakume eta balea-isatsa ageri dira. Emakumeak sagardotegiko



Sebas Larrañagaren artelana. :: usoz

bi emakume dira: **Kizkitza Astarbe** eta beronen ama **Agurtzane Galparsoro**. «Sagardotegi honetan hamabost belaunaldi daukagu dokumentatuta, eta hamabost horietatik zazpi izan dira emakume jaraunseak; hau da, zazpi aldi emakumeren batek hartu du

sagardotegiaren jabetza», adierazi dit **Hur Astarbe** bertako sagardogileak.

Eta iazko beste artelan bat: **Sebas Larrañaga** elgoibartarrak egindako eskultura. «Gure sagastitik sagarrondo batzuk kendu genituen, landare berriak landatu

nahi genituelako, eta ateratako arbola haietako bat eman genion SebaSi, eskultura egin zezana», dio Hurrek. Eskultura figuratiboa egin zuen, tartean botila batzuk ageri direlarik, adarren barruan erdi sartuak.

Lehen, greziarren eta Rubensen sagarra aipatu dugu. Garai modernotara etorrira, **René Magritte** aipa dezakegu, sagarren inguruko bi koadro misteriosu - eta surrealista- egindakoa: 'Gizonaren semea', non sagar batek ia guztiz tapatzen duen koadroko protagonistaren aurpegia; eta 'Entzuteko gela', non sagar berde-berde batek ia guztiz betetzen duen gela.

Euskaraz, badaude sagarrari buruzko abesti batzuk eder askoak. Horietako bat, 'Aldapeko sagarren adarraparen puntan', kantu oso jolastia, mundu guztiak ezagutzen duena, eta urrutira initsitakoa **Kalakan** eta **Madonnaren** bidez:

Aldapeko sagarraren
adarraren puntan
puntaren puntan
txoria zegoen kantari.
Xiru-liruli, xiru-liruli,
nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?

Orain denbora asko ez dela, **Asier Zaldúa** kazetari finari irakurri nion uste izan dela letra eta musikaren egilea Zumamagako konpositore bat izan zela: **Juan Ignacio Busca Sagastizabal** (1868-1950). Gaztetan, etxetik Antioko ermita aldera zihoala entzundako txori batek sorrarazi omen zion abestia.

Hor dugu **Lizardiren** 'Urte giroak ene begian'-eko ahapaldi hura ere, gero **Antton Valverde** kantariak hain modu ederrean gizarteratutakoa:

Sagasti berri, sagasti zuri,
inguma-atsegintokia irudi,
elurte arian geldia!
Ezin urtuzko txingor ugari,
azpi gizenean duk nabari
zelai-bitxizko lore dia...

Bernardo Atxagaren 'Sagarrondo ttipi' ere hor dugu, gero -1980an- **Ruper Ordorikak** kantu bihurtu zuena bere lehenbiziko diskoan, 'Hautsi da anphora' hartan, titulu hau ipinita: 'Sagarrondo bati seaska kanta'. Hona hemen hango pasarte bat, hasierakoa:

Geldiro haziko zara,
mara-mara,
sagarrondo xume,
zipritzin,
tto tto;
doi-doi gizendu,
sagarrondo ttipi,
hogei urtez gero
egonen zara
potolo.

Hona hemen testu batzuk, sagardogileren batek nahiko balu testua marko baten barruan ipini eta parean eskegi...

fibargutxi@diariovasco.com